

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Jendaurrean jartzea etxerako ur hornidura, estolderia eta arazketa, eta zabor bilketaren tasa ordaindu behar dutenen erroldak, 2020ko lehen hiruhilekokoak

Egin direnez etxerako ur hornidura, estolderia eta arazketa, eta zabor bilketaren tasa ordaindu behar dutenen 2020ko lehen hiruhilekoko erroldak, jendaurrean jartzen dira hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendaurreko ordutegian.

Dulantzi, 2020ko ekainaren 1a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA